



AKTA

Espediente-zk.:	Kide anitzeko organoa:
UDALBATZA/2024/3	Udalbatza

BILKURAREN DATUAK	
Deialdi mota	Ohikoa
Eguna	2024ko martxoaren 25a
Iraupena	10:30etik 11:00etara
Tokia	Osoko bilkuren aretoa
Udalburua	Javier Gorbeña García
Idazkaria	Ziortza Guinea Gutiérrez

BILKURARA BERTARATU DIRENAK		
NAN zk.	Izen-abizenak	Bilkura n izan da
18593219L	AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ	Bai
16032037W	CARLOS ALBERTO ITURRIOZ MALAINA	Bai
18598103G	ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁN	Bai
16287057K	EDUARDO LORZA GARCÍA	Bai
72748486S	IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LÓPEZ DE IPIÑA	Bai
30641952H	JAVIER GORBEÑA GARCÍA	Bai
72841412K	MAITE COBO BARCALA	Bai
72831885Q	MIKEL ISASMENDI TXURRUKA	Bai
72841383S	XABIER NAFARRATE CADIÑANOS	Bai

Udalburuak bilkurari hasiera eman dio, idazkariak egiaztatu ondoren organoa balioz eratu dela, eta eguneko aztergaiak aztertzeari ekin zaio.

A) EBAZPEN-ZATIA





Onestea aurreko bilkurako aktaren zirriborroa, 2024ko otsailaren 26koa

Alkate jaunak galdetu du Udalbatzako kideren batek oharrrik egin nahi dion 2024ko otsailaren 26ko bilkurako aktari. Akta deialdiarekin batera banatu zen.

Inork ez du oharrrik egin, eta, Toki Erakundeen Antolamenduari, Jardunbideari eta Araubide Juridikoari buruzko Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 91.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, akta onetsi da.

133/2023 espedientea. 2023. urtean kontzejuetan obrak egite aldera justifikazio-kontuak onetsi eta dirulaguntzak emateko irizpena

Aldekoa

Bozketa mota: ohikoa / aho batez

Aztertu dira 2023. urteko dirulaguntzen deialdiari jarraikiz (2023ko otsailaren 3ko 54 zenbakiko Alkatezaren Ebazpenez onetsi zen), udalerriko kontzejuek aurkeztu dituzten dirulaguntza-eskaerak.

Hemezortzi dirulaguntza-eskaera aurkeztu dituzte honako administrazio-batzar hauek: Acosta, Berrikano, Etxabarri Ibiña, Etxagüen, Gopegi, Letona, Manurga, Murua, Ondategi, Zaitegi eta Zestafe.

Ikusi da 2023ko uztailaren 13ko bilkuran Udalbatza Osoak hartutako erabakia. Horren bidez, 2023. urteko deialdiaren barruan dirulaguntza eman zitzaien udalerriko kontzejuei.

Ikusi da administrazio-batzar eskatzaileek dirulaguntzen deialdian sartu zituzten obren eta zerbitzuen gastuei dagokienez aurkeztutako justifikazio-dokumentazioa.

Kontuan hartu da dirulaguntzen oinarriak arautzen dituen berariazko ordenantzaren 6. artikulua eta honako hau dio:

“Justifikatu ondoren aurrekontu-aplikazioan kreditu-gerakina badago, Udalbatzak deialdi berririk egin gabe erabaki dezake hainbanatuz dagoeneko emandako dirulaguntzen zenbatekoa gehitzea, oinarri hauetan ezartzen den gehieneko muga gainditu gabe”.

Zigoitia udalerriko kontzejuei dirulaguntzak emateko oinarriari buruzko berariazko ordenantzaren 6. artikulua xedatutakoaren arabera, Udalbatzak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA. 2023 ekitaldiko deialdiaren barruan, Zigoitia udalerriko kontzejuetan obrak eta zerbitzuak finantzatzeko dirulaguntzen justifikazio-kontuen berri izatea eta onestea, bai eta ebazpen honi gehitu zaion eranskinari jarraikiz, dirulaguntzak behin betiko eman daitezten onestea ere.

BIGARRENA. 2023 ekitaldiko deialdiaren barruan, obrak eta zerbitzuak finantzatzeari begira, 943.734.000 aurrekontu-aplikazioaren kargura betebeharra aitortzea eta Zigoitia udalerriko administrazio-batzarrei dirulaguntzak ordaintzeko agintzea, ebazpen honi gehitu zaion I. eranskinaren arabera.

HIRUGARRENA. Ebazpen hau administrazio-batzar eskatzaileei jakinaraztea, eta dagozkien errekurtsuak adieraztea.

LAUGARRENA. Emandako eta ordaindutako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea.

ERANSKINA





ADMINISTRAZIO BATZARRAK	ESKATUTAKO OBRAK	DIRUZ LAGUNDUTAKO AURREK.	JUSTIFIKATU TAKO GASTUA	BESTELAK O DIRUL.	DIRULAGUNT ZA
ACOSTA/OKOIZTA 1	Gizarte-kirol-eremuaren alboak ixtea	62.140,76 €	62.140,76 €	0,00 €	37.284,46 €
ACOSTA/OKOIZTA 2	Bidegurutzetan ispiluak zaharberitzea	410,19 €	410,19 €	0,00 €	287,13 €
ACOSTA/OKOIZTA 3	S. Pedro baserrietaraino (Suchares) Acostako partzela-bidearen zoladura	34.913,51 €	34.912,88 €	22.723,98 €	12.188,90 €
ACOSTA/OKOIZTA 4	Gizarte-kirol-eremuaren ondoan aisiarako gunean jolasak instalatzea	17.414,32 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
BERRIKANO 1	Zenbait parketan aulkiak aldatzea eta ikuztegia mahaia nahiz aulki jarraitua instalatzea	13.452,78 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
BERRIKANO 2	Kontzeju-etxean energiaren birgaitze-obrarako proiektua idaztea	17.787,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
ETXABARRI IBIÑA 1	Kontzeju-etxean fatxada eta leiho-isurkia konpontzea	19.392,27 €	19.392,27 €	0,00 €	11.635,36 €
ETXAGUEN 1	Sareak bereizteko lineak zorupean sartzeko eta herria zolatzeko aurreproiektua eta proiektua idaztea	39.930,00 €	15.370,00 €	0,00 €	10.759,00 €
GOPEGI 1	Kontzeju-etxearen ondoan erabilera anitzeko estalkia eraikitzea	67.794,38 €		0,00 €	40.676,63 €
LETONA 1	Letonako terminoei buruzko toponimiako balizak jartzea	3.872,00 €	3.872,00 €	0,00 €	1.936,00 €
MANURGA 1	Manurgatik Larrinoaraino partzela-bidea konpontzea	29.595,15 €	29.595,15 €	19.236,84 €	10.358,31 €
MURUA 1	Gizarte-zentroari erantsita ataripe itxia eraikitzea	103.572,10 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
ONDATEGI 1	Lagagorri kaleko iparraldea urbanizatzea	235.912,76 €	214.370,45 €	181.271,65 €	33.098,80 €
ONDATEGI 2	Kontzeju etxeko kanpoko ataripea ixtea	6.278,40 €	5.671,69 €	0,00 €	3.403,01 €
ZAITEGI 1	Kirol-gunea estaltzea	122.823,63 €	1.431,00 €	0,00 €	715,50 €
ZAITEGI 2	Kontzeju-etxearen estalkian instalazio fotovoltaikoa	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
ZESTAFE 1	A-4410en ondoren kalea asfaltatzea	17.813,00 €	17.813,00 €	14.639,97 €	3.173,03 €
ZESTAFE 2	Autobus-markesina babesteko oztopo-	853,05 €	853,05 €	0,00 €	511,83 €





zurtoina eta trafiko-
ispilua jartzea

690/2023 espedientea. Udaletxean birgaitze energetikorako gauzatze- eta obra-proiektua idazte aldera zerbitzu-kontratu mistoa esleitzeko irizpena

Aldekoa	Bozketa mota: Izenduna Alde: 5; aurka: 0; abstentzioak: 4
Aldekoa	JAVIER GORBEÑA GARCÍA (EAJ- PNV) CARLOS ALBERTO ITURRIOZ MALAINA (EAJ-PNV) MAITE COBO BARCALA (EAJ-PNV) IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA (EAJ- PNV) ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁN (PP)
Aurkakoak	-
Abstentzioak	EDUARDO LORZA GARCÍA (EH BILDU) AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ (EH BILDU) XABIER NAFARRATE CADIÑANOS (EH BILDU) MIKEL ISASMENDI TXURRUKA (EH BILDU)

Ikusi dira honako aurrekari hauek:

Espedientea	Prozedura
80/2022	DUS 5000 programaren laguntzetarako deialdia: udaletxe, musika- eskola eta argiteria publikoaren energia-efizientzia hobetzea.
Espedientea	Prozedura
452/2022	Udaletxean energia-efizientzia hobetzen duen obrarako auditoretza energetikoaren eta memoria teknikoaren zerbitzuak kontratatzea, DUS 5000 deialdian dirulaguntza eskatze aldera.

Ikusi dira adjudikatu nahi den kontratuaren ezaugarriak:

Kontratu mota: Obra eta zerbitzuen mistoa (prestazio nagusia: obrak)	
Kontratuaren xedea: Birgaitze energetikorako proiektua idatzi eta obrak gauzatzea energiaren kontsumoa eta CO ₂ -ren emisioak murrizteko eta, horretarako, udaletxeko eskaera energetikoa gutxitzea eta eraikinaren instalazioetan etekina hobetzea. Hala, inguratzailea birgaituko da eta instalazio berriak jarriko dira sorrera termikorako, fotovoltaikorako eta argiteriarako.	
Kontratazio-prozedura: irekia	Izapidetze mota: ohikoa
CPV kodea: 71221000-3, 71240000-2, 45200000-9, 45210000-2, 45220000-5	
Kontratuaren balio zenbatetsia: 833.127,73 €	
Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZik gabe): 833.127,73 €	BEZa (%): 174.956,82€
Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, BEZa barne: 1.008.084,55 €	
Gauzatze-iraupena: 7 hilabete.	





Ikusi da izapidetu den kontratazio-espedientea:

Agiria	Eguna
Justifikazio-memoria	2023/11/08
Idazkariaren txostena	2023/11/08
Aurretzako fiskalizazio-txostena	2023/11/08
Preskripzio teknikoen agiria	2023/11/10
Administrazio-klausulen agiria	2023/11/10
Espedientea eta administrazio-agiria nahiz agiri teknikoa onesteko Udaltzaren erabakia	2023/11/20
Lizitazioaren iragarkia	2023/11/27
A eta C fitxategi elektronikoak irekitzeari buruzko kontratazio-mahaiaren akta	2024/02/02
C fitxategi elektronikoa baloratzeari buruzko kontratazio-mahaiaren akta kontratatzailearen profilean argitaratzea	2024/02/16
B fitxategi elektronikoa irekitzeari eta adjudikazio-proposamenari buruzko kontratazio-mahaiaren akta	2024/02/21
Errekerimendua lizitatzailerari	2024/02/21
Dokumentazioa aurkeztea	2024/02/29 2024/03/01
D fasearen aurretzako fiskalizazio-txostena	2024/03/06

Aztertu da erantsi den dokumentazioa, ikusi da idazkariaren txostena, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren zuzentarauen transposizioa egiten du Espainiako antolamendu juridikora) bigarren xedapen gehigarrian xedatzen denarekin bat etorri, Udaltzak, gehiengoz, honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA. Kontratazio-mahaiaren proposamena kontuan hartuta, enpresa lizitatuak aurkeztu dituzten proposamenak sailkatzea honako behearazko hurrenkera honen arabera:

ENPRESA LIZITATZAILEA	C FITXATEGI ELEKTRONIKOAREN GUZTIZKO PUNTUAK (gehienez, 50 puntu)	B FITXATEGI ELEKTRONIKOAREN GUZTIZKO PUNTUAK (gehienez, 50 puntu)	AURKEZTUTAKO ESKAINTZAREN GUZTIZKO PUNTUAK (gehienez, 100 puntu)
CONSTRUCCIONES PÉREZ DE SAN ROMÁN,SA	35,25 puntu	12 puntu	47,25 puntu
CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS SA	23 puntu	12 puntu	35 puntu

BIGARRENA. CONSTRUCCIONES PÉREZ DE SAN ROMÁN SA enpresari adjudikatzea udaletxeko instalazioetan eskaera energetikoa gutxituz eta errendimendua hobetuz kontsumo energetikoa eta CO₂-ren emisioak murrizte aldera birgaitze energetikorako proiektua idatzi eta obrak gauzatzearen kontratua, eskaintzan eta administrazio-klausula partikularren nahiz preskripzio teknikoen agirietan zehazten diren baldintzetan.

HIRUGARRENA. Gastua xedatzea honako aurrekontu-aplikazio honen kargura:

Ekitaldia	Aurrekontu-aplikazioa	Zenbatekoa
2024	920.622.001	998.003,70 euro





LAUGARRENA. Erabaki honen berri ematea Kontu-hartzaitzari eta Diruzaintzari, dagozkion kontabilitate idatzoharrak egin ditzaten.

BOSGARRENA. Adjudikazioaren iragarkia 15 eguneko epean kontratatzailearen profilean argitaratzea.

SEIGARRENA. Kontratuaren arduradun udal-arkitektoa izendatzea.

ZAZPIGARRENA. Adjudikazioa adjudikaziodun izan ez diren lizitatzailerei jakinaraztea eta dagozkien errekurtsuak adieraztea.

ZORTZIGARRENA. Erabaki hau kontratuaren adjudikaziodun den CONSTRUCCIONES PÉREZ DE SAN ROMÁN SA enpresari jakinaraztea eta kontratua sinatzeko deitzea.

BEDERATZIGARRENA. Kontratua burutu ondoren, kontratua formalizatzearen iragarkia hamabost egunetik beherako epean kontratatzailearen profilean argitaratzea Sektore Publikoaren Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen III. eranskinean ezartzen den edukiarekin.

HAMARGARRENA. Kontratuaren oinarriko datuak Sektore Publikoko Kontratuaren Erregistroari jakinaraztea: adjudikaziodunaren identitatea eta adjudikazio-zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga bereizita.

HAMAIKAGARRENA. Igortzea Herri Kontuen Euskal Epaitegira kontratua formalizatzeari dagozkion dokumentuaren kopia egiaztatua eta espedientearen laburpena. Hori guztia kontratua sinatu eta hiru hilabeteko epean.

B) KONTROL-JARDUERA

68tik 102ra bitarteko dekretuen kontu ematea

2024-0068 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari buruzko likidazioak ezeztatzeak]

2024-0069 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, energia-efizientziagatik OHZaren hobaria emateko]

2024-0070 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2021., 2022. eta 2023. urteetako ibilgailuaren zerga-kuota hiru epetan zatitzeko]

2024-007 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Eribeko 5. poligonoko 651. partzelan igerilekua eraikitze obraren azken dokumentazioa aurkezte aldera azken epea eta luzaezina emateko]

2024-0072 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Berrikanoko 6. poligonoko 1.121. partzelan eraikitako familia bakarreko etxebizitza lehen aldiz okupatze aldera lizentzia emateko]

2024-0073 DEKRETUA [Deialdiaren dekretua]

2024-0074 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, bidegabe kobratutako zenbatekoak itzultze aldera eskubidea aitortzeko eta benetako zordunari erreklamazioa egiteko]

2024-0075 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, baratze ekologikoak erabiltzeko baimenak emate aldera deialdia onesteko]





2024-0076 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Larrinoako 3. poligonoko 2.029. partzelako 1. eraikinean dagoen etxebizitzan terrazako baldosak aldatze aldera obra txikiko lizentzia emateko]

2024-0077 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, ibilgailuaren behin betiko bajaren likidazioa onesteko, 2024ko TMIZko bilketa-errola onetsi ondoren]

2024-0078 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 3 eurora arteko zenbatekoa kobratzeke duten 2023. urteko likidazioak baliogabetzea]

2024-0079 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Apodakako 1. poligonoko 700. partzelan familia bakarreko etxebizitza eraikitze aldera egikaritze-proiektua onesteko]

2024-0080 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, udalei 2023. urteko Bake Epaitegien funtzionamendu-gastuak ordantzeko agindua emateko]

2024-0081 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxabarri Ibiñan EKIOLA parke fotovoltaikoa ezartzeko proiektuaren azpiegitura instalatze aldera jabari publikoko ondasunaren erabilera pribatua emateko]

2024-0082 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxabarri Ibiñan 1 MWn-ko instalazio fotovoltaikoaren obra handia emateko, GORBEIALDEKO EKIOLA S.COOP sustatuta]

2024-0083 DEKRETUA [Deialdiaren dekretua]

2024-0084 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, T/2024/5 kontabilitate-zerrendako ordainketak onesteko]

2024-0085 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Larrinoako 5. poligonoko 605. partzelari buruzko hirigintza-txostena helarazteko]

2024-0086 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Zigoitia udalerriko administrazio-batzarrei laguntzak emateko, 2023ko jaiak antolatze aldera]

2024-0087 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Murgiako BAIALDEA GURASO-ELKARTEARI dirulaguntza izenduna emateko, Bidelaguna programaren barruan ikasleak garraiatze aldera, 2023-2024 ikasturtea]

2024-0088 DEKRETUA [Alkatetzaren Dekretua, hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioak onesteko]

2024-0089 DEKRETUA [Alkatetzaren Dekretua, hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioak onesteko]

2024-0090 DEKRETUA [Alkatetzaren Dekretua, hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioak onesteko]

2024-0091 DEKRETUA [Alkatetzaren Dekretua, hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioak onesteko]

2024-0092 DEKRETUA [Alkatetzaren Dekretua, hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioak onesteko]

2024-0093 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioak onesteko]

2024-0094 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Manurgako 3. poligonoko 2006A partzelan urrututako hirigintza-legezkotasuna berrezartzeko espedienteari hasiera emateko]

2024-0095 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxabarri Ibiñako 6. poligonoko 688





partzelan dagoen etxebizitzaren barrualdea berritu eta egungo galdara geotermiara aldatze aldera obra txikiko lizentzia emateko]]

2024-0096 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, jarduera eta irekiera lizentziak eskualdatzeko adostasuna emateko]

2024-0097 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, GORBEIA IKASTETXEKO GORBEIA IKASLEEN GURASOEN ELKARTEARI dirulaguntza izenduna emateko, 2023-2024 ikasturteko eskolaz kanpoko programarako]

2024-0098 DEKRETUA, [Alkatetzaren Ebazpena, OKETA ALAI DANTZA TALDEARI dirulaguntza izenduna emateko, euskal dantzetan trebatze aldera, 2023-2024 ikasturtea]

2024-0099 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko otsaileko nominak ordaintzea onesteko]

2024-0100 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Zestafeko 5. poligonoko 1.245. partzelan familia bakarreko etxebizitza eraikitze aldera obra handiko lizentzia iraugintzeko]

2024-0101 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Larrinoa guneko 3. poligonoko 20. partzelan hirigintza-legezotasuna berrezartzeko prozedura ebazte aldera legezko gehieneko epea eteteko]

2024-0102 DEKRETUA [Deialdiaren dekretua]

Alkatearen txostenak

ETXEBIZITZARI BURUZKO INKESTA:

Alkate jaunak jakinarazi du egoitza elektronikoa dagoeneko eskuragarri dagoela udalerriko gazteek etxebizitzaren arloan dituzten premiei buruzko informazioa emango duen inkesta-inprimakia, udal-politika publikoak orientatzeko helburuarekin. Adierazi du gazte horien etxera gutun bat bidali dutela, inkesta betetzeko gonbita luzatuz. Argitu du orain arte hogeita bi erantzun jaso direla, eta epea apirilaren 5era arte dagoela zabalik.

EHIZA-BARRUTIA:

Alkate jaunak jakinarazi du, VI-10.180 ehiza-barrutia adjudikatzeko espedienteari dagokionez, eskaintzak aurkezteko epean hiru kirol-klub aurkeztu direla, eta Larrinoako Kirol Klubaren aldeko adjudikazio-proposamena egin dela.

HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA:

Alkate jaunak jakinarazi du, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko lanekin jarraitzeko lizitazioari dagokionez, eskaintzak aurkezteko epean enpresa bakarra aurkeztu dela, eta enpresa horrek gutxi gorabehera ehuneko 20ko beherapen ekonomikoa aurkeztu duela. Kontratuaren prezioa 84.700 eurokoa da, BEZa barne.

C) ESKAERAK ETA GALDERAK

Eskaerak eta galderak





BARATZE EKOLOGIKOAK:

Mikel Isasmendi Txurruka zinegotziak udal-baratze ekologikoen kudeaketari buruz galdetu du. Idazkariak erantzun du, eskaerak aurkezteko epea amaituta, bost eskaera daudela.

2023. URTEKO AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOA:

Ainhoa Fernández Domínguez zinegotziak 2023ko aurrekontu orokorraren likidazioari buruz galdetu du. Idazkiak jakinarazi du hurrengo astean amaitzea espero duela.

KORRIKA:

Ainhoa Fernández Domínguez zinegotzia kexu da gobernu taldeak ez duelako Korrikaren inguruko kudeaketa partekatu, eta gainerako talde politikoen parte-hartzea errazteko eskatu du.

Alkate jaunak erantzun du Korrikaren antolaketa berariazko bileren bidez egin dela, eta bilera horietan Zigoitiko euskara taldea hartu dela kontuan.

OSASUN ZENTROARI ATXIKITAKO ETXEBIZITZA:

Xabier Nafarrate Cadiñanos zinegotziak osasun-zentroari atxikitako etxebizitzako sukaldea birmoldatzeko obrari buruz galdetu du. Alkateak jakinarazi du egungo aurrekontuan ez dagoela obra egiteko aurrekontu-krediturik, eta aurrekontuaren likidazioa onartu arte itxaron behar dutela gastu hori barne hartzen duen aurrekontu-aldaketa bat finantzatu ahal izateko.

MANTENTZE-LANETAKO LANGILEAREN BIGARREN PLAZA:

Xabier Nafarrate Cadiñanos zinegotziak galdetu du nola konponduko dituen lorezaintzako lanak Udalak, mantentze-lanetako bigarren langile plaza sortzeari dagokionez eta kudeaketa horren atzerapena kontuan hartuta. Alkateak erantzun du egungo langileek egin beharko dituztela lan horiek.

ANTZERKIA:

Ainhoa Fernández Domínguez zinegotziak adierazi du joan den asteburuan jende asko bildu zuen antzerki emanaldi bat egin zela Gizarte eta Kultur Etxean. Pena da obra hori euskarazko bertsioan bultzatu ez izana, aktoreak euskaldunak direla eta aukera hori bazegoela kontuan hartuta.

BENGOLARRAKO LANAK:

Mikel Isasmendi Txurruka zinegotziak Bengolarra birgaitzeko eta handitzeko lanen egoerari buruz galdetu du. Alkateak erantzun du ezkor sentitzen dela lanen aurrerapenari dagokionez, eta uste du ezin izango dela uda honetan igerileku-zerbitzua ireki.

Idazkaritzaren eginbidea:

Toki Erakundeen Antolamenduari, Jardunbideari eta Araubide Juridikoari buruzko Araudia onesten duen azaroaren 28ko Errege Dekretuak 91.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, akta 2024ko apirilaren 15eko bilkuran onetsi da.

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA

